

**II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****ZAMBRANAKO UDALA****Behin betiko onespena ematea zerbitzu publikoen eta administrazio jardueren tasak eta prezio publikoak arautzen dituen ordenantzaren eranskinaren aldaketari**

Udalbatzak, 2020ko ekainaren 18ko osoko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea zerbitzu publikoen eta administrazio jardueren tasak eta prezio publikoak arautzen dituen ordenantzaren eranskina (B epigrafea) aldatzeari. Erabaki hori jendaurrean egon zen eta ez zitzaionez inolako erreklamaziorik aurkeztu, erabakia behin betiko bihurtu da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan xedatzen duenarekin bat etorritz.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan ezarritakoa betez, aipatutako ordenantzaren aldaketaren testua osorik argitaratzen da. Hona hemen:

**Zerbitzu publikoen eta administrazio jardueren tasak eta
prezio publikoak arautzen dituen ordenantza****ERANSKINA. B) EPIGRAFEA. UDAL IGERILEKUEN ERABILERA**

TARIFA	PREZIO BAKARRA
ABONAMENDUA, PERTSONAKO	30,00 EURO
EGUNEKO SARRERA, PERTSONAKO	4,00 EURO
UMEEN SARRERA (lau urte edo gutxiago) (*)	DOAN

(*) Ume sarrera lortzeko, umearen adina egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko da."

Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabete epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Aurrekoaz gain, egoki iritzitako beste edozein errekurtsu ere aurkeztu ahal izango da.

Zambrana, 2020ko irailaren 17a

Alkate-lehendakaria

AITOR ABECIA JIMÉNEZ DE ABERÁSTURI